

# Gipuzkoako Sendagileen Elkargoak intrusismo kasu bat antzeman eta salaketa jarri du

*Mediku hau ez zen Elkargoko kide eta Osasun Kontseilaritzan aurkeztutako dokumentazioa faltsututa lanean ari zen Donostiako medikuntza zentro batean, medikuntza estetikoan.*

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoak salaketa jarri du Instrukzioko Epaitegian Donostiako medikuntza zentro batean lanean ziharduen mediku faltsu baten aurka. Pertsona hau, nazionalitate espainola duena, medikuntza estetikoan lanean ari zen.

Mediku faltsu honen paziente bati esker abiatu zuen Elkargoak ikerketa. Pasa den urriaren 22an paziente hau Elkargora hurbildu zen, mediku honekin kontsulta izan zuelako eta zenbait jarrera arraro somatu zituelako. Egoitzara hurbildu aurretik Elkargoko webgunean mediku honen izena bilatzen saiatu zen, bertan Elkargokide diren medikuen zerrenda kontsultatu daiteke-eta, baina ez zuen mediku honen izena topatu. Medikuen Elkargoen Biltzar Nagusiko webgunera jo zuen gero, Estatu mailako elkargokideen zerrendara, baina hemen ere ez zuen emaitzarik lortu.

Larrituta, Gipuzkoako Medikuen Elkargora hurbildu zen informazio bila. Bertan berehala jarri zen martxan ikerketa: Gipuzkoako elkargokide ez zela konprobatu ostean, Espainiako Elkargoetan ere ez zela ageri konprobatu zen. Hezkuntza Ministerioak ere ez zuen jasotzen bere izenarekin lotutako medikuntzako titulurik. Berehala, Eusko Jaurlaritzako Osasun Departamentuari abisu eman zion Elkargoak. Dirudienez, pertsona honek dokumentazio faltsua aurkeztu zuen departamentu honetan eta halaxe lortu zuen Donostiako medikuntza zentro honetan bere kontsulta irekitzeko behar den osasun baimena.

Hurrengo goizean, urriak 23, Gipuzkoako Sendagileen Elkargoko abokatuak salaketa jarri zuen pertsona honen aurka Donostiako Epaitegian, intrusismo, agirien faltsutasuna eta maulagatik. Salaketa pasa den azaroaren 12an onartu da bideraketarako. Intrusismoa kode penalean jasota dago eta 6 hilabete eta bi urte arteko kartzela zigorra suposa dezake.

## ***Profesioaren kontrola bermatzea, nahitaezkoa***

Mediku baten kontratazio publiko nahiz pribatua egiteko Elkargoren bateko kide izatea nahitaezkoa da, horrela bermatzen baita kontratatuko den pertsona medikuntzan aritzeko baldintza guztiak betetzen dituela. Gipuzkoako Sendagileen Elkargoko presidente den Manuel García Bengoecheak gogorarazi nahi izan du *“tramite honek pazienteen segurtasuna bermatzen duela, arreta emango dion profesionalaren titulazioa eta prestakuntza ziurtatzen dituelako. Halaber, titulazioa ez ezik, medikuak duen espezializazioa ere egiazkoa dela bermatzen da”*

Zentzu honetan, profesional batek Elkargoan alta eman nahi duenean, bere titulu guztiak egiazkoak direla konprobatzen da eta Hezkuntza Ministerioarekin ere egiaztatzen dira datuak.

Gipuzkoako Sendagileen Elkarrekin gogorarazi du herritarrek bere webgunean ([www.gjsep.org](http://www.gjsep.org)) kontsulta dezaketela Gipuzkoako medikuen zerrenda, baita horietako bakoitzak duen espezialitatea ere. Medikuen Elkargoen Biltzar Nagusiko webgunea ([www.cgcom.es](http://www.cgcom.es)) ere beren esku dute, bestelako elkargoetako kideak bilatzeko. Era berean, Elkargoak herritarrak animatu nahi ditu edozein susmoren aurrean Elkargora hurbildu eta informazioa jasotzera.